

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko urtarrilaren 18a. VIII. urtea. 2.159. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Nafarroako aurrekontuen murrizketak salatu ditu Zabalok


Leitzako alkateak Nafarroako ezker abertzaleak datorren urtarrilaren 27ko grebarekin egiten duela bat ere esan du **03**

Hirugarren, sokatira txapelketako lehen jardunaldian

Ibarrako zortzikoak ondo hasi du goma gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketa; larunbateko saioa Abadiñok irabazi zuen **06**

Emaitzak hobetzeko asmoz aurkeztu dute denboraldia

Tolosaldeko aurraunlariak ikasturte berriaren aurkezpena egin zuten herenegun; erakustaldia eta hamaiketako ere egin zituzten **07**



→ **Oparia 100 urteak direla eta.** Asteasuko San Pedro elizako organoak 100 urte beteko ditu ekainaren 29an eta hori dela eta txukun-txukun utzi nahi dute urtebetetze egunerako. Organoak urte hauetan guztietan ia organo-jotzaile bakarra ezagutu du, Enrike Segurola asteasuarra. 18 urte zituela hasi zen organoa jotzen. **05**



44-64
neurriak

Berezi

MERKEALDIA!!!

NEURRI BEREZIAK
Gazte eta emakumeentzako moda



Hesi biziak



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga
Biologia

Hesi biziak edo "heskaiak" gure paisaiako elementuak dira, ziur ehunka ikusi dituzula eta ez zarela konturatu. Landa edo baserri ingurune batean bizi bazara eta gertu zelaiaren bat baduzu atera zaitez leiho- eta begiratu.

Zelaiaren mugak markatzen duhazka lerro bat egongo da. Hesi biziak edo "heskaiak", lerroa nahita utzi zuen zelaiaren jabeak bere zelaiaren mugak markatzaren. Zuhaitz lerro hau, eremu horretan aspaldian zegoen basoaren azken ondarea da, eremu honen jabeak garai batean, basoa moztu egin zuen, belardi bat sortu eta bertan ganadua sartzeko.

Ingurumenaren aldetik eragin kaltegarria izan du: baso autoktono bat gutxiago. Baina beti atzera begira egon beharrean eta desagertu den basoaz negar egin ordez, goazen hesi biziaren onurak

aztertzea eta apur bat zoriontsuago izatera.

Hesi bizi hauek, baso eta zelaiaren arteko nahaste bat dela esan genezake, basoko bizidun txikiak egon ahal dira bertan ezkutaturik baina baita zelaiaren egoten direnak ere, beraz bioaniztasun aldetik balio altuko lekuak ditugu.

Garai batean «pastor elektrikoa» ez zenean erabiltzen, belardien mugak eduki asko markatzen zituzten hesi biziak, gainera hesi mota bakoitzak funtzio konkretu bat zuen. Adibidez, ganadua gordetzeko hesi biziak baziren, zuhaitz altuez osatua zen eta hauen artean sastrakak bazeuden oraindik hobeto.

Mugaturiko eremuek garrantzi handia bazuten eta beraien muga urrunetik ikusi nahi bazen, urkiak landatu ohi ziren, bere azal zuria oso ikusgarria baitzen.

Hesi biziak muga lana egiteaz gain hainbat onura ekartzen zituzten mugatzen zuten eremuari. Batetik izotzaren aurkako neurri oso egokia zen, beroa kontserbatzen laguntzen baitzuen eta haize hotzaren aurkako babesa zen, bestetik eremutik haziak irtetea ekiditen zuten eta alderantziz, kanpotik sar litekeen belar txarren hazientzako oztopoa zen.

Denboraren poderioz hesi biziaren tradizioa metodo modernoagoengatik aldatu da, gehienbat animalia basatien ezkutaleku zi-

rela esaten zelako, horregatik hesi bizi ugari moztu dira azken urte hauetan. Baina oraindik kontserbatzen dira altxor hauetako batzuk eta inguruko bioaniztasunaren mesedetarako dira. Izan ere, hesi biziak mota ugariak dituzten da elikatzea zein habiak egitera, gainera, korridore ekologiko moduan ere joka dezakete basoko animalientzat, hesi bizi baso le- rro mehe bat baita.

Aipatu ere, saguzarrentzako elikatze puntu garrantzitsuak dira, sarritan ikusten dira saguzarrek hesi biziak alde batetik besterazeharkatzen, sigi-sagan, bertan hegan dabilzan intsektuak jazez. Hurrengo txangoan zoazenean, gogoratu hesi bizi edo heskaiak!

Zuen ikastetxean edo kultur etxean hitzaldi-ziklo bat antolatu nahi baduzue, proposamen berriak egin nahi badituzue edo Bioaniztasunetik zutabea gorroto baduzue... idatzitako bioaniztasunetik@hotmail.com helbidera. Eta ez bazarete asetu eta gehiago nahi baduzue ere jakinarazi <http://bioaniztasunetik.blogspot.com>-en, edota Facebook-en: www.facebook.com. Bukatzeko eta ene irakurle baimenarekin, dibulgazioaren txoko txiki honetako zutabe hau, ene lehengusina jaioberriari eskaini nahi niok: ongi etorri gurera June!



Haimar Altuna euskal preso lizartzarra. HITZA

Haimar Altunaren aurkako epaiketa gaur, Madrilen

2005. urtean atxilotu zuten frantziar Estatuan eta iaz Espainiaratu zuten. Gaur du epaiketa

Erredakzioa Lizartza

Haimar Altuna Ijurko euskal preso lizartzarra, gaur izango du epaiketa. Huelvako espetxean dago preso, baina, pasa den aste-

an, Valdemoroko espetxera eramantzen zuten gaur epaiketa duela eta.

2005ean atxilotu zuten

Haimar Altuna 2005. urtean atxilotu zuten Frantziako Estatuan, Maite Aranalde ibartarra eta beste kide batekin batera.

Bertan 5 urte egon zen preso lizartzarra, eta lehengo urtean Espainiaratu zuten. Harrez geroztik, Soto del Real eta Huelvan egon da preso.

Udalbiltzaren aldeko elkarretaratzeak, bihar

20:00etan Anoeta, Villabona eta Tolosaldea udaletxeen aurrean elkartuko dira «absoluzioa» eskatzeko

Erredakzioa Politika

Udalbiltzako auziaren epaia hilaren 20an, ostegunean, aterako da. Hori dela eta, bezperarako, hau da, hilaren 19rako, elkarretarata-

tzeak deitu dituzte. Gure eskualdeko zenbait herrietan ere antolatuko dira.

Elkarretaratzeak *Udalbiltza aske!* *Justizia =absoluzia* lelopean egingo dituzte eta isilak izango dira. Villabona, Anoeta eta Tolosaldea udaletxe aurretan elkartuko dira eta 20:00etan izango dira guztiak.

Herritar guztiei eta inguruko herrietako bizilagunei dei egiten diete elkarretaratze hauetan parte hartzeko.

Hiru autotan lapurreta egiteagatik atxilotuta

Ertzaintzak 14 eta 15 urteko bi gazte atxilotu zituen herenegun Adunako industriagunean

Erredakzioa Aduna

Herrizaingo Sailak jakitera eman duenez Adunako bi gazte atxilotu zituzten hiru autotan lapurreta egiteagatik.

Igande eguerdian Adunako industriagunean gertuta zen. Ertzaintzak ezustean harrapatu zituen bi gazteak.

Ertzaintzaren arabera bi gazteek plastikozko poltsak zituzten eta bertan lapurtutako hiru mugikor, kargagailuak, bi irratikasete eta hainbat erreminta zituzten. Dirudienez, lapurrek industriaguneko burdin sarea pasa zuten eta hiru autoetako kristalak apurtu zituzten autoen barruko aldeak guztiz nahastuz.

V. Poltsikoko Antzerki lehiaketan parte hartzeko aukera zabalik dago

Izena emateko azken eguna martxoaren 18a izango da. Eta lehiaketa martxoan apirilaren 29an hasiko litzateke

Erredakzioa Aduna

Asvineneak berriro ere bere atak zabalduko ditu eta kasu honetan, V. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa egiteko izango da.

Talde handiak, txikiak, klasiakoak, alternatiboak, profesionalak... guztiak sartuko dira Adunako Laborategian. Lehiaketan parte hartzeko beharrezkoa da fitxa ondo betetzea eta poltsiko.lehiaketa@gmail.com emailera bidaltzea. Horretarako azken eguna martxoaren 18a izango da.

Edozein zalantza argitu edo informazioa jasotzeko harremantarako 665 738 081 telefonora deitu daiteke edo begiratu www.asvinea.com helbidean.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrak, 2010eko abenduaren 27an egindako bileran, hasierako onespenea eman zion "20.1 Amartz Papeleria" azpiesparruaren Hirigintzako Egikaritzaren Hitzarmenaren proposamenari, ORUBIDE, S.A.K izenpean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espediente 20 egongo da jenduraren jarrira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesatuek daudenean egokitutako josten dituzten alegazioak aurkezteko.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espediente Tolosako Udaletxeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Hitzarmena behin betiko onartutako joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jenduraren informazio epealdiaren barruan.

Tolosa, 2011ko urtarrilaren 3a. Behin-behineko ALKATEA



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Xabier Zabalo, Leitzako alkatea, Nafarroako ezker abertzaleak emandako prentsaurrekoan izan zen. NAIARA GARCIA

Leitzako ezker abertzaleak bat egin du greba orokorrarekin

Nafarroako ezker abertzaleak herrialdeko Gobernuaren aurrekontuen inguruan hitz egin du

Maier Ugartemendia Leitza

Leitzako Xabier Zabalo, Etxalarako Patxiku Irisarri eta Berako Josu Irazoki alkateak, Nafarroako ezker abertzaleko alkate eta zinegotzien izenean, 2011. urteko aurrekontuen inguruan hitz egin berri du komunikabideen aurrean.

Adierazpen hauek Nafarroako Gobernuaren aurrekontuek «udaletako finantzazioan eragindako kaltea azaldu eta salatuko» egin dituztela dio Zabalo, eta aldi berean, hil honen 27an hego Euskal Herriko gehiengo sindikalak deitutako Greba Orokorraren deialdiari bere atxikimendua emateko.

Tokiko entitateek «2011. urteko

aurrekontuek 20 milioi euroko murrizketa» izango dutela ere salatu du Leitzako alkateak.

Honela, Nafarroako Gobernuak «krisiaren ordainketa Nafarroako herritarren gain uzteaz gainera, krisia sortu zutenen interesen alde egiten du».

Xabier Zabalo dio «udalei languntzak murrizten dizkieten arren, AHT edo Nafarroan horrenbesteko eztabaida sortu duen Entzierroen Museoa bezalako beste proiektu handi batzuk finantzatzeko laguntzak mantendu eta handitu» egiten dituztela.

Nafarroako ezker abertzaleko kideen ustez udalen finantzazio eredu aldaztea ezinbestekoa da, udalei ahalmen eta gaitasun ekonomiko handiagoa eskainiko die.

Tokiko entitateek Nafarroako Gobernuaren zergatan ere parte hartzea eskatu dute. Izan ere, gaur egun «bildutako guztiaren %6a soilik» jasotzen dute. Eta, Xabier Zabalo «80. hamarkadan bezala, udalek gutxienez bildutakoaren

%25a Toki Ogasunen funtsera bideratu beharko litzatekeela» dio, toki entitateen artean bana dadin.

Hau dena kontutan hartuta ezker abertzaleko alkate eta hautesle bat egin dute euskal sindikatuen gehiengoak hilaren 27rako deitu duen greba orokorraren deialdiarekin eta herritarrei mobilizazioetan parte hartzeke deia luzatu diete.

Eguzki ere grebarekin bat

Era berean, Eguzki talde ekologistak ere bat egin du Euskal Herriko gehiengo sindikal eta sozialak hilaren 27rako egin duen greba deialdiarekin. Eguzkiren ustez «oro har, ekologiaren ikuspegitik hamaika arrazoi daude gobernuak krisiaren aitzakian hartzen diren neurriei aurre egiteko».

Hori dela eta, «herritarrei dei egiten diete, hilaren 27an, 19:00etatik 19:30era argiak itzal ditzaten». Deia herritar guztiei zabaldu diete.

Mendibilek prest du 2011. urteko egutegia

Leitzako Mendibil mendi taldeak prest du 2011ko mendi irteeren egitaraua. Ekitaldiz josita dute urtea

Erredakzioa Leitza

Mendibil mendi taldeak jada prest du 2011 urtean egingo dituzten mendi irteeren egitaraua.

Ia hilero izango dute mendi ibilaldiren bat, abuztuaren hartuko dute atsedaldi bakarra. Lehenengo irteera hilabete honetan bertan izango da. Asteburu pasa joango dira; Pirineotan zeharkaldi bat egingo dute mendiko eskia praktikatzuz.

Otsailean egun osorako ipar-eski ikastaro bat izango dute. Somport edo Belaguara joango dira. Irteera hau, gainera, ume zein helduentzat zuzenduta egongo da. Martxoan Baztango mendiak ezagutu ahal izango dituzte, egun oso batean.

Apirilean egun osoko irteera bat egingo dute. Ibilaldian Irunberri, Arangoitian eta Leiren zehar ibiliko dira. Maiatzeko goiz batean Zumaia eta Deba inguruan ibiliko dira. Ekainean Picos de Europa ezagutu ahal izango dute, asteburu batez. Uztailean, arratsalde batean, Esaitik antolatzen duen martxaren azken etaparen amaieran izango dira.

Abuztuaren atsedean bat hartu ondoren, irailean Arabako Urrunaga lakuaren inguruan bizikletaz egingo dute itzulia. Ez dute asperetzeko denborarik izango urrian. Alde batetik Nafarroako Kluben Eguna eta Aurrera Eguna ospatuko dituzte egun batean. Eta bestalde, goiz batean perretxikoak biltzeko irteera bat egingo dute.

Azaroan, goiz batez, Aralarreko eta Txindokiko paisaiez gozatzeko aukera izango dute. Herri inguruan geratuko dira abenduan. Leitzako inguruan ibiliko dira. Gainera, federatze txartelak egiteko aukera izango da hil honetan zehar.

Maria Albisu gazteluarrak 102 urte

102 urte bete ditu Maria Albisu gazteluarrak. Udalak parte hartu zuen ospakizunean

Erredakzioa Gaztelu

Ez da erraza 100 urtetatik pasatzea, baina Maria Albisu gazteluarrak 102 bete zituen urtarrilaren 14an. Udalak ere lore sorta batekin zoriondu nahi izan zuen, eta denek batera txokolata bero bat hartu zuten kontu batzuk esaten zituzten bitartean.



Maria Albisu. HITZA

→ Laburrak

Haitzetan Rajurekin Zuberoa ezagutzuz

IBARRA ▸ Ibarako Haitzetan Raju mendi taldeak irteera bat antolatu du asteburu honetarako. Hilaren 22tik 23ra, Zuberoa ezagutzuz ibiliko dira. Asteburu pasa joateko, hilaren 22an 08:00etan Ibarako plazan bilduko eta abiatuko dira.

Elduaingo Haurreskolako matrikula epea zabalik

ELDUAIN ▸ Elduaingo Haurreskola Publikoan matrikula epea ireki dute. Orain matrikulatutako haurrak martxoaren 1n hasiko lirake haurreskolan. Haurrak matrikulatzeko aukera urtarrilaren 17tik 28ra (biak barne) bitarte izango da. Haurreskolaren ordutegia 07:30etik 18:30era da. Eskaerak jaso eta entregatzeko inprimakia haurreskolan eskaintzen da. Harremanetarako: 943 683 589.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450a salgai. 2006. urtekoa eta egoterra oso onean. Interesatuak deitu 635 75 09 15 telefono zenbakira.

■ **Apartamentua.** Jaka erdigunean, altzariz guztiz hornituriko apartamentua salgai. Garaje eta trasteroarekin. Interesatuak deitu 667 49 25 57 telefonora.

LAN ESKAINTZA

■ **Telefono arreta.** Ingelera eta alemana menderatzen dituen pertsona baten bila gabilta, telefono arreta zerbitzuan lan egiteko. Interesatuak deitu 943 31 86 00 telefono zenbakira edo bidali curriculuma info@logikaline.com posta elektronikora.

Tolosaldeko Udala

IRAGARKIA

AROTZEGIETA KALEA 4KO 4 ETXEBIZITZA TASATUEN ESLEIPENERAKO BEHIN-BEHINEKO ZERRENDEN ARGITARATZEA

- Behin-behineko zerrenden argitaratzea: 2011ko urtarrilaren 12tik aurrera.
- Leku: Tolosaldeko Udaleko iragarki taulan eta www.tolosaldeko.net web orrian.
- Erreklamazioak egiteko azkeneko eguna: 2011ko urtarrilaren 28a, 13:00-ak arte.

Tolosa, 2011ko urtarrilaren 12an
ALKATEA
Jokin Bildarratz Sorron

Irudia ◊ Tolosa



INFO7 IRRATIAREN SAIOA ZUZENEAN TRIANGULOATIK

Info7 irratiak bost urte beteko ditu hilaren 27an. Hori dela-eta irratiaren berri eskualdean zabaltzeko goiz pasa egin zuten Tolosako Trianguloa plazan larunbatean. Irratsaioa zuzenean egin zuten eta postu bat jarri zuten plazan erretako txerriaren pintxoekin. Eider El-

duaiei irratiako kideak azaldu duenez, «oso gustura gaude bai langile taldea, bai herri ekimenekoak ere» egunak emandakoarekin. «Irratsaioan eskualdeko hainbat jende izan zen eta gai ugari jorratu ziren». Plazan sortu zen giroa «oso polita izan zen», azaldu du eta

irradiaren berri zabaltzearen helburua lortu dutela. Proiektua egonkortzeko beharrezkoa den laguntza ekonomikoa eman nahi duenak info7.com helbidean sartu eta bazkide egiteko aukera duela azaldu du Elduaiei. Info7 entzungai da eskualdean, FM 97.7an.E.M.

Irudia ◊ Ibarra



Irudia ◊ Amezketeta



GIBELALDE ETA JAUREGI AURRERA

Ibarrako Xepla elkartearen Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketa jokatu zen ostiralean. Iker Gibelalde eta Joseba Jauregi osatutako bikotea izan zen irabazlea eta, beraz, sari gisa arkumea jasotzeaz gain, hurrengo faserako sailkatu dira. Argazkian txapelketaren une bat. A.IMAZ

HERRIKO 17 ERAGILEK SINATU DUTE

Amezketako alderdiek eta sindikatuek Gernikako akordioa sinatu ostean, iritsi da herriko beste eragileei akordioa zabaltzeko aukera. Horrela, igandean guztira 17 talde ezberdinen atxikimenduak

jaso zuen akordioak. Ekitaldia txalaparta doinuekin hasi zen. Ondoren, akordioaren irakurketa egin zuten eta horren jarraian eragile bakoitzetik kide batek sinatu zuen. SARAGOMEZ

ADI!

urtarrilaren 21ean harpidedunentzako

ESKAITZA BEREZIA



Promozio berria

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com



Heziketa Zikloak eta Txandakako Ingeniaritza

Ate irekiak:
URTARRILAREN 22an
(11:00etan)

Etortzeko deltu
943744132 telefonora
edo apunta zaituz
www.imh.es orrian

100 urte bete aurretik konponduko dute elizako organoa

Hiru edo lau hilabete beharko dituzte konponketa lanetarako. San Pedro jaietarako prest egongo da

Eneritz Maiz Asteasu

Ekainaren 29an 100 urte beteko ditu Asteasuko San Pedro elizan dagoen organoak. Urte asko dira eta urte guzti hauetan ia ez zaio mantentze lanik egin. 100 urte bete aurretik ordea, konpondu eta txukundu egingo dute organoa. Konponketa bultzatu dutenak herriko Usarrabi kantu taldekoak izan dira. Duela bost urte sortu zen Usarrabi taldea, tartean Marga Jimenez donostiarrarengoa. Jimenez urte asko daramatza Andazarraten bizitzen.

Kantu taldekoak elizatik bertara abestera joateko gonbita jasotzean hasi ziren guztia garatzen, orduan hasi baitziren bertan abesten. Honelako egun batean, organoak jarria duen plaka ikusi zuten: *«Este órgano se inauguró el día 29 de junio de 1911»*. Eta orduan konturatu ziren organoak ia 100 urte dituela. Aitzakia polita iruditu zitzaion. «Zergatik ez gara mugitzen eta organoa konpontzen dugu eta bide batez ekitaldi batzuk antolatzen ditugu, pentsatu genuen», gogoratzen du Jimenezek. Esteban Elizondo katedratiakoarekin harremanetan jarri ziren eta berak lagundu die. Konponketa lanetarako bi aurrekontu eskatu zituzten eta Foru Aldundiarekin harremanetan jarri ziren diru laguntza eskuratzeko.

1909ko abenduaren 19a

Henri Didier etxe frantseseko organoa da Asteasun dagoena. Hona ekarri eta bertan muntatu

zuten. Garai hartan, hau da, 1909ko abenduaren 19an, eginiko batzarrean, Don Braulio Arozena herriko parrokoaren eskaria aintzat hartuz, herriko udalak diru laguntza onartu zuen. Organoaren kostua 15.000-20.000 pezeta artekoa izango zela eta Udalak, hiru zatitan ordainduz, 4.000 pezeta jarri zituen.


Orain ere diru laguntzak lortu dituzte. Foru Aldundiak zati bat eta bestea Asteasuko Udalak jarriko du. Usarrabi kantu taldeak ere bai Gabonetan eta Santa Ageda egunean dirua bilduko du, kasu honetan, mendeurreneko ekitaldietarako. San Pedroen inguruan ekitaldi ezberdinak izango dira eta dagoeneko lotuta dituzte Esteban Elizondoren emaldea eta baita Aita Donostia abesbatzarena ere. Herriko musikariak ere izango dira.

Bestetik ere aipatu behar da, hala ere, izan ere Asteasuko organoak, bere ia 100 urtean, organojotzaile bakarra ezagutu du, Enrike Seguroa. Asteasuarra da eta 18 urte zituela hasi zen bere herriko elizan organoa jotzen eta gaur egun 86 urte beteak dituen arren, igandero-igandero joaten da organoa jotzera. Konpondu beharrean dagoela aspalditik daki, zailtasunak baititu organoa behar bezala jotzeko.

Konponketa lanak direla eta ilusioz beteta dago Enrike Seguroa. San Pedro jaietan, herriko organoaren nota guztiek kalitatezko doinua izango dute.

Usarrabi taldea

Kanturako zaletasun handia duela dio Jimenezek eta beste lagun batekin batera herrian kantujira mugimendua sortu asmoz udal txerajo zuten herrian zehar deialdia zabalduz. Gogoan du lehen deialdian hiru lagun elkartu zire-



Asteasuko San Pedro elizan dagoen organoa. 100 urte bete aurretik konpontze lanak egingo dizkiote. E.MAIZ



Enrike Seguroa organojolea eta Marga Jimenez. E.MAIZ

la. Ez zuten etsi ordea, eta inguruko jendea animatzen hasi ziren. Gaur egun, ziurtasunez astelehenero 18 lagun elkartzten dira. Batak bat euskal abestiak abesten dituzte, baina ongi pasatzea dute helburu eta «afariak ere egiten ditugu, talde polita dugu» dio.

Gehiengoa adineko jendea dela gogoratzen du, «gazteena 45 urteko emakume bat da». Horregatik egiten die dei berezia gazteei abestera gerturatzeko. Beste kantujira taldeekin ere harremana dute, Baionara edota Gernikara ere joan direlarik. Aiztondo bailararen artean ere beste taldetxo bat dute eta esaterako Gabonetan Fraisoron izan ziren abesten.

GIPUZKOAN LORTU ARTE AKORDIOA

Tolosan, urtarrilaren 29an
Topic-en, 12:00tan




Kirolak

↓ **Emaitzak**

PILOTA

BINAKAKO TXAPELKETA	
Lehen maila	
Titin III-Paskual	20
Bengoetxea VI-Patxi Ruiz	22
Gonzalez-Laskurain	
16	
Olaizola I-Beloki	22

Bigarren maila

Gorka-Merino I	22
Olaetxea-Albisu	17
Rico IV-Argote	
17	
Olazabal-Arruti	22

SASKIBALOA

LEHEN MAILA	
Hamabigarren jardunaldia	
Take Bide Bide Ibiza	63
Viajes Marfil	66

Sailkapena

1. Fundacion Baskonia (10-3)
2. Lizuan.com (9-4)
3. Goierrri (8-4)
6. Bide Bide Ibiza (5-8).

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA	
18. jardunaldia	
Tolosa	1
Zumaiako	0

Sailkapena

1. Hernani (39 puntu)
2. Anaitasuna (38 puntu)
3. Pasajes (37 puntu)
10. Tolosa (25 puntu)

ERREGIONAL PREFERENTEA	
16. jardunaldia	
Lazkao	2
Tolosa 'B'	3
Euskalduna	6
Intxurre	2

Sailkapena

1. Urola (34 puntu)
2. Elgoibar (32 puntu)
3. Aretxabaleta B (31 puntu)

8. Tolosa B (23 puntu)	
16. Intxurre (10 puntu).	
ARETO FUTBOLA	
NAZIONAL A MAILA	
16. jardunaldia	
Sestao	5
Lauburu Ibarra	2

Sailkapena

1. Zierbana (40 puntu);
2. Atenea Ikusnet (28 puntu);
3. Zalatabor (27 puntu)
5. Ibarra (25 puntu)

NAZIONAL B MAILA	
15. jardunaldia	
Concepto Createch	4
Irish Pub Sheperd	0
Transportes Lakunza	4
Laskorain Ikastola	6

Sailkapena

1. Concepto Createch (40 puntu);
2. Laskorain ikastola (37 puntu);
3. Bilbo FS (35 puntu);
8. Transportes Lakunza (20 puntu);
10. Irish Pub Shepherd (17 puntu).

SOKATIRA

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA	
Gizonezkoak, 680 kilotan	
1. Abadiño	
2. Sokarri	
3. Ibarra	
4. Amairu	
5. Zuraido	
6. Seis Conceyos	
* Hurrengo txapelketa, 640 kilotan, hilaren 22an jokatu da Ezpeletan.	

Emakumezkoak, 540 kilotan lehen jardunaldia	
1. Badaiotz (6 puntu)	
2. Ibarra (3,5 puntu)	
3. Sakana (2,5 puntu)	
* Bigarren eta azken jardunaldia, 540 kilotan, hilaren 29an jokatu da Ibarra.	



Tiralariak eskualdera itzuliko dira berriro ere hilaren 29an, oraingoan ordea, zortziko taldeetan. A. IMAZ

Euskal Herriko goma gaineko txapelketan ibartarrak ongi hasi dira

Erredakzioa Sokatira

Larunbatean hasi zen goma gaineko 2011ko Euskal Herriko Sokatira Txapelketa, eta lehen txapela Abadiño talde bizkaitarrak bereganatu zuen, 680 kilokoan, hain zuzen ere. Abadiñok 1998an lortu zuen lehen txapela 680 kilotan, eta harrezkeroztik urtero bereganatu du txapela 1999, 2000 eta 2001ean izan ezik.

Durangoko Ezkurdi pilotalekuan jokatu zen lehian, 160 ikusle elkartu ziren. Gizonezkoen 680 kiloko jardunaldi bakarrera jokatu zen, eta sei taldek hartu zuten parte. Bigarren postuan Sokarri gelditu zen eta hirugarren Ibarra-ko zortzikoa.

Txapeldunek ibartarren aurka

egin zuten tiraldirik luzeena, 02:07 iraun zuelarik.

540 kilotan, lehen jardunaldia Emakumezkoen 540 kilokoan, lehen jardunaldia jokatu zen Durangon. Txapelketa bi itzulira jotzeko dute. Hiru talde lehiatu ziren larunbatean: Badaiotz (Gasteiz, Araba), Sakana (Arbizu eta Lakuntza, Nafarroa Garaia) eta Ibarra (Ibarra, Gipuzkoa).

Lehen itzulian Badaiotzek bi txandak eta lau tiraldiak irabazi zituen. Ondorioz, sei tanto eskuratu zituen lehen jardunaldi honetan. Ibarra, berriz, bi tiraldiak irabazi zizkion Sakanari, eta 3 tanto eskuratu zituen. Sakana tantorik gabe geratu zen, hirugarren postuan.

↓ **Egutegia**

EUSKAL HERRIKO SOKATIRA TXAPELKETA

- **Urtarrilak 22.** Ezpeletan (Lapurdi), 640 kilotan gizonezkoak.
- **Urtarrilak 29.** Ibarra, gizonezkoak 640 kilotan eta emakumezkoak 540 kilotan.
- **Otsailak 5.** Zeberion (Bizkaia), gizonezkoak 640 kilotan eta emakumezkoak 540an.
- **Otsailak 19.** Baionan. Gizonezkoak 600 kilotan.
- **Martxoak 12.** Gernikan, gizonezkoak 600 kilotan eta emakumezkoak 500 kilotan.
- **Martxoak 19.** Arrigorriagan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN


hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK · 18:30ak arte hartzen ditugu · tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Berreskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erabazteko izan dadin.

Irudia ◉ Arrauna



TOLOSALDEKO ARRAUNLARIAK PREST DAUDE

Neguan arraun munduak atsedean hartzen du. Lehiak bai, baina ez entrenamenduek. Tolosaldeko arraunlariak dira horren adibide garbia. Hala eta guztiz ere, ikasturte berriaren aurkezpena herenegun egin zuten Zerkausian. Ondoren Oria ibaira sartu ziren ekitaldia borobiltze aldera. Neska eta mutiliei begira hauen guraso eta herritarrak el-

kartu ziren. Horretarako TAKeko arduradunek hamaiketako prestatu zuten Zerkausian. Maila ezberdinetako arraunlariak, urtea indartsu hasteko gogor ari entrenamenduetan eta emaitzak hobetzea izango dute helburu. Ea aurtengoan Kontxa eskualdera ekartzeko aukera dagoen. SARA GOMEZ

10 goleko derbia jokatu dute

Iñaki Egizabal Areto futbolak

Ez zuen batere hutsik egin pasaden larunbatean Villabonako Olaederran jokaturiko derbiak. Laskorain eta Lakunza aurrez aurre, neurketak bizilagunen arteko neurketek izan ohi dituzten osagaiak izan zituen: intentsitatea defentsan, baloi jabetza laburrak erasoan, markagailu parekatua eta emozioa harmailetan. Azken uneetako ahaleginean nagusitu ziren tolosarrak 4 eta 6.

Laskorain ikastolakoek ederki zekiten egutegiak lehen itzulian amaitzeko egokituriko jardunaldia benetan zela zaila, Nazional mailan lehiatzen duten bigarren denboraldian Villabonako Transportes Lakuntzaren kantxatik oso puntu gutxi egingo baitute ihes. Partiduaren derbi izaerak gainera zailagoa bihurtzen zuen erronka.

Nola hala, futbolaren paradoxak, horitxoak partida erabakitzekeko puntuak izan ziren lehen

zation. Etxekoaren lehen minutuko txanpari bikain eutsi eta gero, zehaztasun suitzarrez eraikiriko hiru jokaldietan 0-3 aurreratzea lortu zuten Barriola, Zubillaga eta Saldiasen golei eskerrak. Ondoren ordea, laugarrena sareratzeko aukera galanta hutsegini zuten eta atsedendialdiaren aurretik billabonatarrek beraien estraineko egin zuten atezain jokalarirekin, etxekoaren entrenatzailearen ausardiaren fruitu.

Norgehiagokak bizirik zirauen eta nola gainera; aldageletatik bueltan etxekoek bigarrena egin zuten eta Barriolak 2-4koarekin erantzun bazuen ere, Villabonakoek ez zuten amore eman eta ederki aprobetxatu zuten bi epaileetako batek horitxoengan eragindako arreta hutsunea, launako berdinketa ipintzeko. Gol ikusgarria gainera berdinketarena. Azken minutuetan eta berdinketa markagailuan zelarik, unerik zail eta erabakiorrean alegia, horitxoek beraien aurpegi

onena eskaini zuten eta hamar metroko jaurtiketa erratu baten eta langakada baten ostean iritsi zen bosgarrena, berriro ere Barriola kapitainak sinatua. Jarraian Txikik egingo zuen lasaitasunaren seigarrena, azken segunduetan.

Goraipatu nola ez aste honetan 27 urte bete dituen Barriola kapitainaren partida. Amaroztarren ezaugarri den irabazle senaren jabe Unai hamargarren denboraldia ari da osatzen Laskorain eta jada klubaren behi sakratuetan sakratuenetarikoa bihurtu da. Adinaren zama.

Gainontzean, gauza asko gehitu balitezke ere, larunbateko derbiari, aurreko mendeko 20. hamarkadan Bilbon entrenatzaile izan zen Pentland maisu handiak, bere patxada ingelesarekin irakatsi ohi zuena gogoratu behar: «Galtzen denean gauza gutxi esan behar da, eta irabazten denean are eta gutxiago». Hala bedi.

Saralegi eta Olasagasti txapelketatik at

Leitzar gazteak eta igeldoarrak amore eman behar izan zuten igandean Azurmendi-Atutxa II.aren aurka

Erredakzioa Leitza

Binakako aizkolari txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu zen herenegun Nafarroako Arbizu herrian. Urrezko Mailan Leitzako Ruben Saralegi gazteak jokatu zuen, Joxe Mari Olasagastirekin bikotea osatuz. Aurkariak ordea, bi minutuko aldeaz nahiko erraz gailendu ziren.

Sei modu ezberdinetan 58 enbor moztu ostean, Azurmendi-Atutxa II.ak 21 minutu eta 52 se-

gundotan gelditu zuten kronoa. Leitzarrak eta igeldoarrak berriz, 24:24ean. Ondorioz, azken hauek txapelketari agur esan zituen.

«**Bikote oso indartsua**»

Ruben Saralegiren osaba, Gabriel Saralegi, Arbizun izan zen herenegun. Aizkora sustatzaile amorratuak honela azaldu du bertan gertatua: «Rubenek eta Olasagastik lehen proban kolpe batzura galdu zituzten, baita abiadura proban ere. Zutikakoan Ruben normalean nahiko ongi ibiltzen da, baina Arbizun motelxeago ibiltzen. Gero atzetik ikusi zirenean, beti izaten da zaila. Azurmendi-Atutxa II.ak berriz, bikote oso indartsua osatzen dute. Txapelketa honetan zeresana emango dute-lakoan nago».



HITZAK harpidedun batentzat
sarrera pare du



LAGUN ARO GBC
Baloncesto Fuenlabrada
saskibaloi partida

Abenduak 23 • Igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben

Txolarre irratia antolatuta
Bertso Jaialdia

Urtarrilak 22 • Larunbata
18:00etan
Tolosako Leidorren



sarrerak

HITZAK harpidedun batentzat
sarrera pare du



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818. tolosa@iragarrin.net
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko ideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

MENDI IRTEERAK

■ **Tolosa.** Hilaren 22 eta 23an Frantziako Pirineoetara joateko irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak. Larunbatean 07:00etan irtengo dira Gavarnie aldera, Gedre eta Gavarnie herrien artean dagoen Coumely Via Ferrata egiteko. Luz St. Sauveuen egingo dute lo. Igandean Saint Pe de Bigorre herrian dagoen trabesia espeleologiko bat egingo dute, Gouffre de Hayau eta Grotte de la Bouhadere kobazuloen artean. Bertan 6 rapel egingo dituzte eta altuena 30metrotakoa dela argitu dute. Izena emateko deitu 688 69 86 42 telefono zenbakira edota idatzi info@oargi.org helbidera.

■ **Ibarra.** Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak asteburu pasa egingo du hilaren 22 eta 23an Zuberoka ezagutzeko. Larunbatean 08:30ean irtengo dira herriko plazatik.

■ **Villabona.** Aizkardi mendi taldeak Sara-Zugarramurdira joateko irteera antolatu du igandera. 07:00etan irtengo dira Olaederra kiroldegitik eta 6 ordutako ibilbidea egingo dute. Izena emateko deitu 649 71 71 82 telefono zenbakira 20:00etatik 22:00etara. Izena emateko azken eguna osteguna izango da.

ERAKUSKETAK

■ **Alegia.** Maria Luisa Gorrotxategiren margolanak urtarilla bukaera arte egongo dira ikusgai Alegiako Jubilatuen tabernan.

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Minbiziaren Aurkako Elkarteak *Norberaren Zainketa Prozesu Onkologikoetan* tal-

rra antolatu du gaurko. 12:00etatik 13:30era izango da jardunaldia elkartearen egoitzan (Emeterio Arrese, 2). Doan izango da eta plaza mugatuak daudenez, 943 65 21 43 zenbakira deitu beharko da.

■ **Elduain.** Haurreskoalako matrikula epea zabaldu dute. Hilaren 28ra arte, egun hau barne, eman daiteke izena. Haurreskolan bertan jaso daitezke izena emateko orriak. Haurreskolaren ordutegia honakoa da: 07:30etik 18:30era. 943 68 35 89 telefono zenbakira deitu daiteke informazio gehiago eskuratzeko.

■ **Beterri.** Asteburu honetan hasiko da Beterriko IV. Bertsolari Txapelketa. Lehen kanporaketa Andoain Ontza elkartearen izango da ostiralean 20:30etik aurrera. Bigarrena berriz, Asteasu-ko Aitzondo elkartearen izango da hilaren 28an 20:30ean eta finala Villabonako Behar-Zana elkartearen izango da otsailaren 12an 20:30etik aurrera. Txartelak telefonoz ere eskatu daitezke, aurretik ordainduz gero. Horretarako 943 30 07 33 telefono zenbakira deitu behar da.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 1112.
■ **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Berastegi




SAN ANTON EGUNA OSPATU DUTE


San Anton Eguna zen atzokoan eta gurean, urtero bezala, Berastegin ospatu zuten. Lehenik eta behin meza izan zuten San Anton basilizan eta ondoren etxeko animalien txanda izan zen. Be-

rastegitarrek euren etxe eta baserrietako animalirik kuttunenak eraman zituzten ermitara eta han bedeinkapena jaso zuten. Ondoren, hamaketakoa egin zuten bertaratutakoek. HITZA

Agurrak



Urte askoan!
Asier Rojo Aizpurua (Alegia).
Gaur 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partetik.



Urte askoan!
Unax Lizarraga Calvo (Zizurkil).
Gaur 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



**PILAR GOYA
ESTETIKA ZENTROA**



Errota 2, behea • Villabona
Tel.: 943 69 13 66

- Diodo laserra (gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat)
- Aurpegi-tratamenduak
- Zimurren betegarri-tratamendua ama zelulekin:
- Urrezko xafak
- Azalaren aholkularitza doan
- Oinen eta eskuen tratamendu eta edertasuna (irraupen luzeko esmalteak)
- Solarium bertikala, 10 minutu
- Solarium horizontala, 20 minutu
- Bainuen aurrekontua eskatu
- Depilazioa erabilera bakarrek argizariarekin